

Liburu aurrerapena >

Orbanak

Ezin ukatu dut: ikaragarri gozaten naiz dantzan. Inoiz hala ikusi ez zaituenak lanak izanen ditu sinesten, esaten zidan emazteak elkar ezagutu eta berehala. Eta bai, hala zen eta halaxe da oraindik ere.

Ez dut denbora asko ematen ispilu aurrean, baina nire burua ikusi orduko konturatzen naiz zer itxura hartzen didaten besteak begien aurrean naukatelarik. Badakit gizon gatzik gabea eta zurruna ematen dudala, txorakeriatan ibiltzea atsegin ez duen horietakoa, eta ez naiz askorik saiatu jendeak duen irudipen hori aldatzen. Badut norekin dantzatu eta konforme naiz hala den bitartean.

Lotuan aritzean hartzen dut gozamenik handiena. Askean ere ikasi nuen gaztetan, baina ez naiz hain zalea. Kontua da lotua hobe-

ki etortzen zaiola nire izaerari; bestean aritzeko grina handiagoa behar da eta laster konturatatu nintzen berdoztuta egon behar izaten nuela ahalkerik gabe ibiltzeko. Jende aurrean egon edo ez egon, emaztearekin estu antzean ari naizenean diferentia da. Atea itxi bazu bezala edo... zer dakit nik.

Zaleok, ordea, dantzarako ez dugu dantzarako proportzio handirik izaten inguru honetan. Uda-ko festak, ezteiak eta horrelakoa... Ezer gutxi. Etxean ere egiten dugu batzuetan, irratian pieza politen bat jartzen dutenean.

Hala ere, nik udako plazakoa nahiago, eta emazteak ere bai. Eta abuztuko Ama Birjinaren ospakizunak ematen diguten aukera zabala aprobetxatzen ikasi genuen. Nire jaioterriaren inguruan, oso eremu txikian, lau herritan egiten dira eta batetik bestera ibiltzeko ohitura hartu

genuen. Menditarra ezagutu nuen uda hartan ere hantxe ginen.


Bi egun lehenago aizkora saioa egin zen herrian dantzaldia ere antolatzen zuten arren, hurrengo herrira joatea erabaki genuen emazteak eta biok. Lau bat kilometro harago diago eta normalean jende gehiago biltzeaz gain musikari hobeak eramaten dituzte.

Zumardi txiki bat dute han, plaza eta geltokia lotzen dituen. Txurroak erosi eta hantxe jarri ginen gora eta behera zebiltzanez begira. Apenas ikusi genuen ezagunik, eta poztu egin nintzen. Bero zegoen oso arratsaldeko dantzalekura inguratu ginenean. Lotuak eta ez oso biakiak aukeratzan ditugun arren, egun hartan mugitzen hasi orduko izerdi patsetan ginen. Arratsaldekoa bukatu aurretik oimaztagiek edierki erakutsi ziguten zer zetorren.

Haizea bazterrak harrotzen hasia zen eta busti usaina zekarren. Pentsatu genuen motorra hartu eta zitzuan hanka egitea baino hobe genuela ostatuan mokadu bat egin eta presarik gabe itzultzea. Ostaturako bidean gindoazela ikusi nuen berriz menditarra, eta ez bakarrik.

Tiropitxoian zeuden. Lau lagun ziren, baina menditarrak ez ziren begiratu ere egiten ondoren zituen mutil luzeari eta harekin zegoen neskari. Gu pasatzean perdigoi bat sartzen ari zen karabinan eta aldamenean zuen soineko loreduko neskari nola tiratu behar zuen erakusten ari zitzaion. Menditarra ez zen baxterre zakarra, erakusten zion bitartean ukitu txikiak eta arinak egiten zizkion neskari gerrian, sorbaldan, besoan eta eskuan, baina nahi gabe bezala, finta-sunez. Neskak tiro egin eta biok barre egin zuten. Gero bistatik galdu nituen.

Beharrik ez ginen abiatuak, ostatuan geundela bota baitzituenuen bota beharreko guztiak. Bitartean leporaino bete zen osta-



Pello Lizarralde (Zumarraga, 1956) 'Orbanak' nobela aurkeztuko du datorren astean, Ereinek argitaratua. Hilketa bat du abiapuntu: herriko fabrikari lan egiten duen ingeniari aleman baten emaztea hilik azaldu da pagadi batean. Ez dakigu iheslearen izenik; soilik orbain bat duela lepoan. Ez dakigu hiltzailea hura den ala ez, baina ihesi eta ezkutuka agertzen zaigu. Begiek, belarriek eta usaimenak iheslariaren ibilera larriaren, uxakaren edo bareagoaren berri ematen digute zehaztasun eta bizitasun handiz. Paisaiaren barruan hartzen du arnasa nobelak — eta orbanak —, iheslariaren pauso sosegatu edo arinagoen martxan.

tua eta azkenean giro itogarria eta hezea zegoen. Horregatik, atertu orduko joa genuen kanpora. Gau zoragarria gelditu zen; hastekoa zen arratsko dantzaldia eta gozamina ematen zuen freskura hartan paseatzeak, aire garbi hura eta usain gozo haiek arnasteak.


Pixka batean itxaron behar izan genuen harik eta argi guztiak itzuli arte, eta aiherrik geunden musikariak noiz hasiko. Gogoratzen naiz, gehienetan bezala pasodoble batekin ekin zituela, eta han elkartuak ginen guztion dantzatzeko erari erreparatu besterik ez zegoen oihartzeko nola biziberrituak gintuen ekaitzak.

Horrela joan ziren zenbait pieza, eta gu ezitana. Lotuetan, pixkaka, parejaz bete zen erdi aldean, eta horietako batean, jiraka val-sean ari ginea bistatu nuen berriz menditarra. Gugandik dozena erdi bat metrora zegoen, gu bezalaxe dantzan, eta arratsaldean aldamenean zeukan soineko loreduko neska zuen lagun. Oraingoan, hain hurbil nituen, neskari erreparatu nion lehenik. Ederra zen oso, eta ezpainetan zuen irribarreak are ederragoa egiten zuen. Menditarra ere ez zegoen triste, neskaren aldean, ordea, itxura barea ematen zuen, beharbada, begiratu batean behintzat, neska baino hamar bat urte zaharragoa zelako.

Dantzan ari naizenean zaila izaten da ni gogoa ia erabat hartan jarri gabe aritzea, baina aitortu behar dut gau hartan bikote hari zenbait begiratu egin nizkiola begi bazterraz. Erraza zitzaidan, haiek, itxura batean, ez baitziren beste mortaz arduratzen.

Hurbilago geunden batean atentzioa eman zidan aurrekoan menditarrari ikusi ez nion zerbaitek. Hain zen nabarmena, ze harritu egiten naiz nolatan ez nuen ezagutu orduko ikusi. Begien bistakoa zen lepo aldean zuen orbaina. Halako gutxi ikusi ditut. Argi apala zegoen han eta, hala ere, ditzidiz egiten zion.

Hurrengo begiratuan urrunago nituen. Ez dakit noiz, baina menditarra ohartua zen zerbaitez bazela eta poliki-poliki baztertu ziren. Eta, orduan, pentsatu nuen bidezkoa zela; hark beste edozeinek bezalaxe, nik bezalaxe, merezi zuen ilunantzean, begiak itsuan, doimuez eta dantzaz gozatzea emakume baten gerriari lotuta.



JOSE IGNACIO AGORRETA